

LITERATURA. Alberdania argitaletxeak kaleratu du eleberria Alga sail berriaren baitan

‘Piztiaren izena’-ren gaztelerazko bertsioa idatzi du Anjel Lertxundik

‘El huésped de la noche’ izena du euskarazko ipuin bildumatik abiatuta osaturiko eleberriak

Ainhoa Oiarzabal | DONOSTIA


«Asko disfrutatu nuen liburua irakurtzen, oso zaila egiten zitzaidan alde batera uztea», esan zuen atzo Anjel Lertxundiren *El huésped de la noche* liburuaren aurkezpean Miguel Sanchez-Ostiz idazleak. Pio Barojari buruzko bere liburuak eman zion hasiera Alberdania argitaletxearen Alga sailari. Eta jarraipena, berriz, atzo Donostian aurkeztu zuten Lertxundiren gaztelerazko liburuak eman dio.

«Batuetan, beldurtu egiten zaitu», esan zuen Sanchez-Ostizek eleberriari buruz, «eta, gainera, irakurleak berak irudikatu behar du beldur horren sorburua», gaineratu zuen. Halaber, garai jakin batean kokatu gabe eraikitako istorioa izatea gorai-patu zuen. «Eta hori egitean asko arriskatu du idazleak, gaztelerazko literaturan gutxi erazten baitute horrela». Sanchez-Ostizen ustez «irudiak erabiliz» idazten du Lertxundik.

Maria Angelesi gutunak

Piztiaren izena ipuin bildumaren gaztelarazko bertsioa da *El huésped de la noche*, hango ipuinekin osatu du eleberria idazle oriotarrak. Hala, eta idazleak berak atzo azaldu zuenez, hainbat moldaketa egin dizkio eleberrian berau idazteko abiapuntu izan duen istoriari. Irudikatutako irakurle bati, Maria Angelesi, eleberria idazten ari zen bitartean bidalitako gutunen zenbait zati irakurri zituen prentsaurrekoan Anjel Lertxundik. Lehenik eta behin, eleberriko pertsonaia nagusiari izena zergatik jarri dion azaldu zuen: «Esaten didazu pena ematen dizula bentariari izena jarri izana (...) Baina eleberrian, ipuinean ez bezala, egokia da pertsonaia honek izena izatea. Hain zuzen ere, euskal balada ezagun bateko izena jarri diot: Milia». Salvatore, Andrea Madalen, Milia... eleberriko pertsonaien izen horiek jada beste testuinguruetan ezagutzen zituzten irakurleek konplizitatea lortu nahi izan duela azaldu zuen idazleak.

Halako aldaketa gehiago egin ditu Anjel Lertxundik. Esaterako, *El huésped de la noche* liburu-ko pertsonaia garrantzitsuena, Milia bentaria, euskarazko ipuinean baino haserretuago ageri da eleberrian: «Ipuineko benta-



Anjel Lertxundi *El huésped de la noche* liburuaren azalarekin eginiko kartela eskuetan duela.

M. SANCHEZ-OSTIZ

Idazlea

«Batuetan beldurra eragiten du istorioak. Gainera, irakurleak irudikatu behar du beldurraren sorburua»

ria baino kontzienteago da oraingoa». Era berean, hizkuntzarekin eduki duen kontua aipatu zuen, gaizki jarritako hitz batek testu osoa hankaz gora jarri dezakeela-eta.

Ez du uste liburua fantastikoa denik, «narratzaileak kontatzen diena soilik kontatzen baitu; fedea du kontakizunetan». Horrekin gelditu omen da gustuen, zehaztu zuen Lertxundik. Horren ondotik esan zuen narrazioa idazlearen eta bere itzalen arteko elkarriketa dela, «eta irudiek baino behar gehiago dute kontatuak izatekoa».

Literatura nazionala hiltzeaz

Poeta greko baten «hizkuntza bedekatu hau konpondu» esaldia bere egin zuen Lertxundik «literaturaren errepublikaren errebaletan» dagoen hizkuntzaren balio artistikoari buruz mintzatzean, «eta hori abantaila da hizkuntzarentzat,

ANJEL LERTXUNDI

Idazlea

«Etorkizun hurbilean elementu linguistikoek ez dute eduki literarioek baino garrantzi gehiago izango»

hainbeste erabili diren beste hizkuntzen aldean behinik behin». Hala ere, «literatura nazionala» delakoa hiltzeaz dagoela aipatu zuen: «Jada ez baita posible izango istorio literarioak idaztea elementu linguistikoek eduki literarioek baino garrantzi gehiago dutelarik». Bere ustez, globalizazioak kulturaren dinamismoan eragingo du, «hots, uniformetasunaren kontrako erresistentzia».

Literaturaren etika eta estetika izan zituen hizpide Lertxundik, «biak txanpon beraren bi aldeak dira (...) Eta formaren bilatzea da mundua ulertzen saiatzeko bidea». Halaber, pertsonaia apalez aritzearen garrantzia nabarmendu zuen.

Agerraldia bukatzeko, liburuarekin oso gustura gelditu dela eta Antton Olariagaren azaleko marrazkiaren egokitasuna aipatu zituen Anjel Lertxundik idazleak.

ITZULPENAK

‘Los días de la cera’ apirilean kalean

«Kaixo Maria Angeles! Alfaguarakoek deitu didate *Los días de la cera* liburua apirileko azokarako kaleratu nahi dutela esateko». Gisa horretara eman zuen Anjel Lertxundi idazleak *Argizariaren egunak* Alfaguaren eskutik gazteleratu eta merkaturatuko den berria. Atzoko agerraldian irakurri zuen ustezko irakurle bati bidalitako gutun baten zatia da goian aipaturiko esaldia.

Gutun horien bitartez Anjel Lertxundik adierazi zuenez, «oso ongi» pasa zuen *Los días de la cera* eleberriaren istorioa berrirakurtzen: «Nahiz eta berez liburua serioa izan, barre asko egin dut berau berrikustean. Asko disfrutatu dut».

Los días de cera liburua kaleratuko duen Alfaguara argitaletxeak idazle oriotarraren liburu gehiago argitaratu ditu. Esaterako, *Un final para Nora* (*Azkenaz beste*) eleberria eman zuen argitara.

LAGURAEAN



EGUNKARIA
Anna Ricci.

MUSIKA

Kataluniako Anna Ricci mezzosopranoa hil da

Anna Ricci mezzosoprano kataluniarra herenegun hil zen, 70 urte zituela. Riccik gaixotasun larri bat zuen aspalditik. Musika garaikidearen interpretatzaile sarituenetako bat izan da mezzosopranoa, hala ere, ez zion muzin egiten bestelako musika estiloei. Era berean, artearen espresibide ezberdinak uztartu ohi zituen.

ARTEA

Benedicto Martinezek triptiko bat oparitutako dio OLBEri 50. urteurrenean

Operaren Lagunen Bilboko Elkartaren (OLBE) 50. urteurrena dela-eta —2003. urtean beteko da—, hiru koadroen triptiko bat oparitu dio aipatu elkarteari Benedicto Martinez margolariak. Koadro horietako bat Francisco Escudero konposaturiko *Zigor* operari buruzkoa da.

‘Picasso erotikoa’ erakusketa paratuko dute Parisen

Otsailaren 20tik aurrera *Picasso erotikoa* izeneko erakusketa irekiko dute Parisko Jeu de Paume arte galerian. Sexua izango da erakusketa-aren gaia, eta horri buruzko 300 marrazki, grabatu, margo nahiz eskultura jarriko dituzte ikusgai.

DANTZA

Basquiat-en bizitzan oinarrituriko dantza ikuskizuna eskainiko dute Bilbon

Bebeto Cidraren dantza konpainiak New Yorkeko Jean Michel Basquiat artista plastikoaren bizitzan oinarrituriko dantza ikuskizuna eskainiko du gaur eta bihar Bilboko La Fundacion aretoan. Ikuskariak artista iparramerikarraren sormen indarra islatu asmo du.